

Amezketako musika-taldeak

Umore ona “jazpana” edo orkestina

■ Joxe Mari Oterminek “AMEZKETA largo y tortuoso camino” liburuan dioena kontuan hartuta, musika-talde hori 40. hamarkadaren hasieran sortu zela dirudi. Amezketan igande askotan eta beste herri batzuetan ere jotzen zuten. Honako hauek osatzen zuten taldea:

- o Dionisio Etxeberriak akordeoia jotzen zuen.
- o Jose Antonio Zabala San Sebastianek saxofoia jotzen zuen.
 - Amezketan jaio zen, 1917/7/20an.
 - Amezketan zendu zen, 1952/10/09an.
- o Antonio Etxeberria Olanok (Anton Fiterok) bateria jotzen zuen.
 - Amezketan jaio zen, 1916/02/01ean.
 - Amezketan hil zen, 1973/05/12an.
- o Mateo Sanzek (tolosarra) klarinetea jotzen zuen.

"ENARAK" taldea

■ Donostiako Seminarioan sortu zen, 1968 inguruan. Honako hauek osatzen zuten taldea, Filosofiako ikasleak guztiak:

- o Jon Iturrioz (Legorretakoa), abeslaria.
- o **José Iñurrita, “Kitxi” (Amezketakoa), organista.**
- o Antton Lopez (Arrasatekoa), gitarrista.
- o Meltxor Maritxalar (Pasaiakoa), gitarra baxua.
- o Jesús Calvete (Donostiakoa), bateria.

1970 inguruan, Antton Lopezek taldea utzi egin zuen eta beste hauek jo zuten gitarra:

- o Eduardo Moreno Bergaretxe “Pertur” (Donostiakoa), gitarra. Sei hilabetetan aritu zen, errefuxiatu zen arte.
- o Jaime Stinus (Donostiakoa), gitarra. Urtebete inguru aritu zen. Estatu mailan gitarrista hoberenetakoa izendakoa. Orquesta Mondragon taldean, Revolver taldean eta beste talde famatu batzuetan parte hartutakoa. Gaur egun, diskoetxea dauka Bartzelonan, eta musika-produktorea da.

1971. urtean sakabanatu zen taldea.

■ Musika mota:

- Geur abestiak: "Bainan ez"...
- Kantu zaharren moldaketak: "Ama", "Solferinoko itxua"...
- Kantautoreen abestien moldaketak: Raimon, Serrat...
- Rock gogorra: Credence, Rolling Stones...
- Rock Sinfonikoa: Moody Blues, Procol Harum...
- Folka: Bob Dylan...

■ ABESTI GUZTIAK EUSKARAZ

- o Letrak sortu eta erdaraz zeudenak euskaratzeko lana, ikaskide genuen Antton Aranburu usurbildarrak egiten zuen. Bertsolaria, idazlea eta ETBko aurkezlea, gaur egun.
- o Juan Mari Lekuona Oiartzuarrak ere egiten zigun lan hori; gure irakaslea garai hartan.

■ GURE HELBURUA EUSKARA PLAZARATZEA

Ingelesez edo gazteleraz kantatzen ziren abestiak hartu, eta, euskaraz kantatuz, gazteak ibiltzen ziren lekuetara joaten ginen orduan:

- Dantzalekuetara.
- Gazte asanbladen festetara.
- Ikasleek antolatutako kontzertuetara.
- Antzokietan egiten ziren kontzertuetara...

Beste aldetik, herriko festetara etortzen ziren taldeek, trikitixa izan ezik, erdaraz kantatzen zuten eta horien musika mota pasodobleak, tangoak, balsak edo horrelakoak ziren.

Horretarako, Gipuzkoako herri gehienetako festetan, Bizkaiko eta Nafarroako herri askotan jotzen izan ginen. Eta horietan jotzen genituen abestiak mota guztietakoak ziren, euskal dantzak tartean zirela. Hau da, herrietako plazetan eta beste leku askotan entzuten zen musika euskaraz entzutea lortu genuen.

Geroztik, talde asko eta hobeak izan dira hori bera egin dutenak, baina, esan genezake, lehenengoak izan ginela horretan.

Kitxik idatzia 2007an.

Gautxori taldea

▪Kideak:

- o Ainara Galarza (Soinujoleetan jarria)
- o Naiara Errexil (Soinujoleetan jarria)
- o Uxue Iñurrita
- o Agurtzane Murua (Organistetan jarria)
- o Joseba Goñi (Gitarristekin jarria)
- o Jon Gurrutxaga (Gitarristekin jarria)

▪1993-96 urteen bitartean jardun zuen talde horrek.

▪Haurren txapelketa batera aurkezteko prestatu ziren; Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten; eta Euskal Herri mailakoan, 2. geratu ziren.

▪Amezketan kantatu zuten gehienbat.

Triki-Up taldea

▪Kideak:

- o Ainara Galarza (Trikitixa) (Soinujoleetan jarria)
- o Naiara Errexil (panderoa-ahotsa) (Soinujoleetan jarria)
- o Uxue Iñurrita (Ahotsa)
- o Agurtzane Murua (Teklatua-ahotsa) (Organistetan jarria)
- o Jon Mujika (Bateria) (Ibarrakoa)
- o Jon Aranburu (gitarra) (Alegian jarria)

▪1996-1999 urteen bitartean jardun zuten jotzen.

▪Musika-talde gazteen txapelketa batera aurkeztu ziren.

▪Inguruko herri batzuetan ibili ziren: Zizurkil, Txarama, Hernialde, Alegia, Amezketeta...

▪Martxaundik argitaratutako CDan “Euskara indartuz” izeneko haien abestia dago grabatua. Horren hitzak Bixente Gorostidik jarriak dira eta musika Iker Goenagarena da.

PROBAK taldea

- Kideak:

- o Jon Gurrutxaga (gitarra) Gitarristekin jarria)
- o Mikel Goñi (gitarra) (Gitarristekin jarria)
- o Jon Lizaso (baxua) (Ibarrakoa)
- o Jon Mujika (bateria) (Ibarrakoa)

- Sei urtez aritu ziren musika egiten, 1997tik 2003ra, gutxi gorabehera.
- Amezketan ematen zituzten kontzertuak.
- Musika Eskolako kontzertu eta ekitaldietan parte hartzen zuten, Eguberrietan ere bai.